Basque - Lizunkeria Liburu Santuek - Lust Scriptures

Irteera 15:9 Etsaiak pentsatu zuen: "Pertsegitu eta harrapatuko ditut, lapurtu eta harrapakina banatuko, aseko dut neure gutizia. Ezpata zorrotik atera eta haietaz jabetuko naiz".

Irteera 18:21 Gainerakoetarako, bereiz itzazu herri osoaren artetik gizon iaioak, Jainkoari begirune diotenak, fidagarriak eta eskupeko-zale ez direnak, eta ezarri mila, ehun, berrogeita hamar eta hamarreko taldeen buru.

Irteera 20:14 «Ez egin adulteriorik.

Irteera 20:17 «Ez gutiziatu lagun hurkoarenik ezer: ez haren emazterik, ez morroi-miraberik, ez idirik, ez astorik, eta ez beste ezertxo ere».

Zenbakiak 11:4 Israeldarrekin elkartu zen arrotz-jendeari jateko gogoa bizkortu zitzaion, eta israeldarrak negarrez hasi ziren haiekin batera, esanez: «Haragi pixka bat bagenu behintzat!

Deuteronomioa 5:21 «Ez gutiziatu lagun hurkoaren emaztea. Ez irrikatu haren etxerik, ez sororik, ez morroi-miraberik, ez idirik, ez astorik eta ez beste ezertxo ere.

Deuteronomioa 12:20 «Jaunak zeuen Jainkoak lurraldeko mugak hedatuko dizkizue, berak hitzeman bezala; orduan, jan gura izanez gero, nahi adina haragi jan ahal izango duzue.

Deuteronomioa 22:22 «Norbait emakume ezkondu batekin oheratua harrapatzen badute, biak hilko dituzte, gizona eta emakumea. Horrela desagerraraziko duzue gaiztakeria Israeldik.

Josue 7:21 harrapakinen artean, babiloniar soingaineko zoragarria ikusi nuen, baita zilarrezko berrehun txanpon eta kilo erdiko urre-puska ere. Hainbeste gustatu baitzitzaizkidan, hartu egin nituen. Lurpean gordea dut dena neure oihal-etxolaren erdian; dirua azpian dago.

Salmoak 9:3(24) Nahi zuena lortu duela eta, harro dabil; bidegabez irabazten du eta Jauna bedeinkatu ustean mespretxatu egiten.

Salmoak 77:18 Jainkoa probatu nahi izan zuten, gogoak ematen zien jatekoa eskatuz.

Salmoak 78:30 Baina beren irrika ase orduko, artean janaria hagin artean zutela,

Salmoak 80:13 Orduan, zapuztu egin nuen bere burugogorkeriagatik: bizi zedila bere gogara.

Salmoak 105:14 Jan-irrika sartu zitzaien basamortuan, eta Jainkoa tentatu eremuan.

Salmoak 118:36 Makurtu nire gogoa zeure xedapenetara eta ez beste

irabazirik desiratzera.

Esaera Zaharrak 1:19 Hauxe da lapurretan dabilenari gertatzen zaiona: lapurrari berari kentzen dio bizia.

Esaera Zaharrak 6:25 Ez izan haren edertasunaren irrikarik bihotzean eta ez zaitzala harrapa bere begiratuez.

Esaera Zaharrak 15:27 Diruzaleak bere etxea hondatzen du, eroskeria gorroto duena luzaro biziko da.

Esaera Zaharrak 21:25,26 Nahikundeek hilarazten dute alferra, haren eskuak ez baitaude lanerako prest. 26 Batzuk egun osoan irrikaz bila, zintzoak ezer gorde gabe eman.

Esaera Zaharrak 28:16 Printze zentzugabeak zapalkuntza areagotzen; bidegabekeriazko irabaziak gorrotatzen dituena luzaroan biziko.

Isaias 56:11 Aseezineko txakur goseak dira. Eta horiek dira herriaren artzain, ezer ulertzeko gauza ez direla! Nor bere bidetik doa, bere probetxuari baino begiratu gabe.

Isaias 57:17 Herriaren gaiztakeriagatik, haserretu egin nintzen une batez, zigortu egin nuen eta ezkutatu egin nintzaion. Berak bizkarra eman zidan eta bere gogoko bidetik jo zuen.

Jeremias 6:13 Denak, txiki eta handi, irabazi-gose dira, apaizak eta profetak faltsukeriari emanak.

Jeremias 22:17 «Zuk, ordea, irabazteari besterik ez diozu begiratzen, errugabea hil eta herria zapaldu eta esplotatzeari besterik ez».

Jeremias 51:13 Babilonia hori, bi ibai handiren artean zaude, aberastasun handiak dituzu! Iritsi zaizu, ordea, azkena, akabo zure irabaziak!

Ezekiel 6:9 Eta bizirik gelditutako horiek nitaz oroituko dira erbesteratuak egongo diren nazioetan; gogoan izango dute nola sufriarazi nien beren desleialkeriagatik, bihotzak niregandik aldendu eta idoloetara jo zutelako. Beren buruen nazka izango dute egindako gaiztakeriengatik, beren idolatria higuingarriagatik.

Ezekiel 14:4,5 Hitz egin, bada, eta adierazi nire, Jainko Jaun honen, mezua: Bekatu eragiten dieten idoloetara bihotz-begiak emanak izanik, profetagana etortzen den Israel herriko edonori neuk, Jaunak, erantzungo diot; eta nire erantzuna berorren idolo ugariek merezi dutena izango da. 5 Bihotza ukituko diet israeldar guztiei, beren idoloengatik niregandik urrundu diren horiei.

Ezekiel 22:12 Zure baitan bada bere burua diruz saltzen duenik, lukurreriaz interesak kobratzen dituenik, lagun hurkoa zapalduz aberasten denik. Eta nitaz ahazturik bizi zara! Honela diot nik, Jainko Jaunak.

Ezekiel 33:31 Eta multzoan etortzen dira zuregana, eta nire herria zure aurrean esertzen da; entzuten dituzte zure hitzak, baina bete ez; atsegin

dituzte zure hitzak, baina beren probetxu bila dabiltza barruan.

Oseas 4:12 Egur-puska bati egiten diote kontsulta, zurezko idolo batek ematen dizkie erantzunak. Prostituzio-haizeak jo ditu, beste jainkoen atzetik joateko, ni, beren Jainkoa, bazter utzirik.

Oseas 5:4 Egin duten okerrak ez die uzten beren Jainkoarengana bihurtzen. Izan ere, prostituzio-haizea hondoraino sartu zaie, eta ez dute Jauna aintzat hartu nahi.

Miceas 2:2 Lurrak gutiziatzen dituztela? Lapurtu egiten dituzte. Etxeak irrikatzen dituztela? Hartu egiten dituzte. Indarrez hartzen dute nagusia, bere familia eta etxaldearekin.

Nahum 3:4 Ninive, gehiegikeriez beteriko emagaldua, sobera ederra eta sorginkeriatan iaioa! Bere lohikeriez nazioak menderatzen zituen, bere sorginkeriez herrialdeak.

Habakuk 2:9 «Zoritxarrekoa zu, zoritxarrari ihes egin ustez etxea bidegabeko irabaziz aberastu duzun hori, gordeleku segurua eduki ahal izateko!

Mateo 5:28 Nik, berriz, hau diotsuet: Emakume ezkondu bati irrikaz begiratzen dionak, egin du jadanik adulterioa bere bihotzean.

Markos 4:19 baina bizitza honetako ardurak, diru-gosea eta bestelako grinak nagusitzen zaizkie eta mezua ito egiten diete, fruiturik gabe utziz.

Markos 7:22 adulterioak, diru-gosea, gaiztakeriak, maltzurkeria, lasaikeria, bekaizkeria, irainak, harrokeria, burugabekeria.

Lukas 3:14 Soldaduek ere galdetu zioten: –Eta guk, zer egin behar dugu? Joanek erantzun zien: –Ez atera inori dirurik gogorkeriaz, ezta gezurrezko salakuntzaz ere; konforma zaitezte daukazuen soldatarekin.

Lukas 12:15 Orduan, guztiei esan zien: –Kontuz! Gorde diru-gosetik, ondasunek ez baitiote inori bizia segurtatzen, ugari izanda ere.

Lukas 16:14 Entzun zuten hau guztia fariseu diruzaleek, eta barre egiten zioten Jesusi.

Joan 8:44 Zuek deabrua duzue aita, harenak zarete, eta zeuen aitaren gogoa nahi duzue egin. Hura hiltzaile izan da hasieratik, eta egian oinarritua ez dagoenez, ez du sekula egiarik esaten. Gezurra dioenean, bere-berea duenetik ari da, gezurti baita, eta gezurraren aita.

Eginak 20:33 «Ez dut inoren zilar-urrerik edota jantzirik irrikatu izan.

Erromatarrei 1:24-29 Horregatik, Jainkoak beren grina txarren menpe utzi ditu eta zikinkerietan erori dira, beren buruak desohoratzeraino. 25 Egiazko Jainkoaren ordez, gezurrezkoa ezarri dute eta, Egilearen ordez, egindakoak gurtu eta zerbitzatu. Bedeinkatua bera beti! Amen. 26 Jainkoak, beraz, grina lotsagarrietara eman ditu: emakumezkoek berezko sexu-harremanak utzi eta naturaren kontrakoetara jo dute. 27

Gizonezkoak ere, berez dagozkien emakumeekiko harremanak utzirik, elkarren irrikaz suturik dabiltza: gizonezkoek gizonezkoekin itsuskeriak egiten dituzte eta, horrela, beren jokabide okerraz merezitako zigorra berengan hartzen. 28 Jainkoaren egiazko ezagutza baztertu dutelako, Jainkoak beren pentsaera okerraren menpe utzi ditu, behar ez dena egin dezaten: 29 zuzengabekeriaz, txarkeriaz, diru-gosez eta gaiztakeriaz josiak daude; bekaizkeriaz, giza hilketaz, haserrez, azpikeriaz eta asmo gaiztoz beterik; izen onaren kentzaile,

Erromatarrei 6:12 Beraz, bekatua ez bedi gehiago nagusi izan zuen gorputz hilkorrean. Ez jarri beraren grinen menpean,

Erromatarrei 7:7 Horrekin zer esan nahi dugu? Legea bekatu dela? Ez horixe! Hala ere, legearen bidez bakarrik ezagutu nuen bekatua. Gutizia zer den ez nukeen jakingo legeak hau esan ez balu: Ez gutiziatu.

Erromatarrei 13:9 Izan ere, harako Ez egin adulteriorik, ez hil inor, ez ostu, ez gutiziatu eta beste edozein agindu, esaldi honetan biltzen da: Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala.

Erromatarrei 13:14 Bizi zaitezte Jesu Kristo Jaunari itsatsiak, eta ez ibili giza grinak bete nahian.

1 Korintoarrei 5:10,11 Ez nintzen mundu honetako lizunez mintzo, edo hemengo diruzale, lapur eta sasijainkozaleez; bestela, mundutik atera egin beharko zenukete. 11 Hau da esan nahi nizuena: kristau direla esan eta lizun, diruzale, sasijainkozale, izen onaren kentzaile, mozkor edo lapur direnekin ez elkartzeko. Horrelakoekin, ezta otordu bat egin ere!

1 Korintoarrei 6:9,10 Ez al dakizue bidegabeek ez dutela Jainkoaren erreinua iritsiko? Ez engaina zeuen buruak! Lizunek, sasijainkozaleek, adulteriogileek, emakeria-zaleek, sodomitek, 10 lapurrek, diruzaleek, mozkorrek, izen onaren kentzaileek eta iruzurgileek ez dute Jainkoaren erreinua iritsiko.

1 Korintoarrei 10:6 Hau guztia guretzat ikasbide izateko gertatu zen, gaiztakeriarik irrika ez dezagun, haiek irrikatu zuten bezala.

1 Korintoarrei 12:31 Dena dela, irrika itzazue dohainik onenak. Orain biderik bikainena adierazi nahi dizuet.

1 Korintoarrei 14:39 Beraz, ene senideok, irrika ezazue profezi dohaina, baina hizketa arrotzez mintzatzea galarazi gabe.

2 Corinthians 9:5 Horregatik, beharrezkoa iruditu zait, ni heldu aurretik anaia horiei zuengana joateko eskatzea, zuek agindutako emaitza prestaturik eduki dezaten. Prest egongo delarik, eskuzabaltasunaren adierazgarri izango da, eta ez zimurkeriaz egindako emaitza.

Galaziarrei 5:16-20 Beraz, hauxe diotsuet: Bizi zaitezte Espirituari dagokionez, eta ez giza grinei jarraituz. 17 Giza grinak Espirituaren

aurkakoak dira eta Espiritua giza grinen aurkakoa. Bi indar horiek elkarren aurkakoak dira; horrela, ez duzue nahi zenuketena egiten. 18 Espirituak gidatzen bazaituzte, ordea, ez zaudete legearen menpe. 19 Giza grinetatik sortzen diren egintzak ezagunak dira: lizunkeria, zikinkeria, jokaera biziotsua, 20 idolatria, sorginkeria, etsaigoak, haserreak, bekaizkeria, gorrotoak, norgehiagokeria, alderdikeria, zatiketak,

Galaziarrei 5:24 Eta Jesu Kristorenak direnek gurutzean hilarazi dute bekatuzko beren giza izaera

beronen gurari eta grinekin.

Efesoarrei 2:1-3 Zuei dagokizuenez, hilik zeundeten zeuen hutsegite eta bekatuetan, 2 hori baitzen zuen jokabidea garai batean, mundu honen joerei jarraituz: munduan agintzen duten indarren buruzagiaren menpeko zineten, jende errebeldeagan ari den espirituaren menpeko. 3 Gu guztiok ere hala bizi izan ginen lehen: geure giza grina txarrei jarraituz, geure grina eta burutapen gaiztoek agindutakoa betez; izatez, guk ere Jainkoaren zigorra merezi genuen, beste guztiek bezala.

Efesoarrei 4:19 Zentzu morala galdurik, lizunkeriara jo dute, aseezineko antsiaz era guztietako bizioetara emanak bizitzeko.

Efesoarrei 4:22-27 alde batetik, zuen lehengo bizierari uko egin eta giza izaera zaharra, grina engainagarrien eraginez hondatua, erantzi egin behar duzuela; 23 eta, bestetik, zeuen gogo-bihotzak berritu 24 eta giza izaera berria, Jainkoaren irudira sortua, jantzi behar duzuela, Jesusen egiaren arabera biziera zuzena eta santua eramateko. 25 Bazter ezazue, beraz, gezurra eta esan egia nork bere lagun hurkoari, guztiok elkarren atal baikara. 26 Haserretzen bazarete ere, ez heldu bekatu egiteraino; zuen haserreak ez beza eguzkia sartu arte iraun. 27 Ez eman inolako aukerarik deabruari.

Efesoarrei 5:3,5 Aipatu ere ez egin zuen artean lizunkeria edota inolako bizio eta gutiziarik, fededunei dagokienez; 5 Jakizue, lizun, zikin eta gutiziatsu bakar batek ere –halakoa sasijainkozalea baita– ez duela Kristoren eta Jainkoaren erreinuko ondarean parterik izango.

Kolosarrei 3:5 Hilaraz itzazue, beraz, zeuen baitan mundu honen araberako jarrerak: lizunkeria, zikinkeria, irrits eta grina txarrak eta idolatria den diru-gosea.

1 Tesalonikarrei 2:5 Jainkoa dut lekuko, eta zuek ere badakizue, ez ginela behin ere lausenguaz baliatu, ezta diru-gosearen eraginez jardun ere;

1 Tesalonikarrei 4:3-7 Hau nahi du Jainkoak zuengandik: bizi zaiteztela berarentzat, sagaratuei dagokienez, eta alde egin dezazuela lizunkeriatik. 4 Joka dezala bakoitzak zentzu santuz eta errespetuz bere

emaztearekin, 5 bere burua grinen menpeko egin gabe, Jainkoa ezagutzen ez duten jentilek bezala; 6 inork ez dezala gai honetan bere senidea irain edo engaina, Jauna bera baita horiez guztiez mendekatzen dena, lehen ere behin eta berriro zinez esan genizuen bezala. 7 Jainkoak ez gaitu moralgabekerian bizitzeko deitu, berarentzat sagaraturik bizitzeko baizik.

1 Timoteori 3:3,8 ez ardozale, ezta sesiozale ere, bihozbera baizik, baketsua eta ez diruzalea. 8 Diakonoak ere agurgarri eta hitzeko gizon izan daitezela, ez ardozale, ezta irabazi zikinei emanak ere;

1 Timoteori 6:9,10 Aberats izan nahi dutenak tentaldiaren sarean eta gizakia hondatzen eta galtzen duten grina zoro eta kaltegarri askotan erortzen dira. 10 Zeren diru-gosea baita gaitz guztien sustraia; diruaren irrikagatik sinesmenetik aldendu eta atsekabe asko bereganatu du zenbaitek.

2 Timoteori 2:22 Egin ihes gaztaroko grinetatik, eta saia zaitez justizian, sinesmenean, maitasunean eta bakean, Jaunari bihotz garbiz dei egiten diotenekin batera.

2 Timoteori 3:2 Izan ere, gizakiak berekoi, diruzale, harro eta handiputz izango dira; biraolari, gurasoentzat errebelde, esker txarreko eta erlijioaren aurkako;

2 Timoteori 3:6,7 Horien artean badira batzuk, etxeetan sarturik, bekatuz beteak eta era askotako grina txarren menpe dauden emakume kaskarinak liluratzen dituztenak; emakume horiek jakin-minez daude beti, baina ez dira inoiz egiaren ezagutzara iristeko gauza.

2 Timoteori 4:3 Etorriko baita gizon-emakumeek irakaspen osasungarria jasango ez duten garaia: beren grinen eraginpean, maisuz inguratuko dira, berauei entzuteko irrikaz;

Titori 2:12 Honek irakasten digu Jainko gabeko bizitzari eta munduko grina txarrei uko egiten, eta neurriz, justiziaz eta jainkozaletasunez mundu honetan bizitzen,

Titori 3:3 Gu ere, noizbait, burugabe, errebelde, bide-galdu, edozein grina eta atseginkeriaren menpeko izanak gara, gaiztakerian eta bekaizkerian bizi izanak, gorrotagarri eta elkarren gorrotatzaile.

Hebrearrei 13:5 Ez izan diru-gose; egon pozik duzuenarekin, Jainkoak esana baitu: Ez zaitut utziko, ez baztertuko.

Santiago 1:14,15 Aitzitik, nor bere grina txarrek tentatzen dute, horiek dute liluratzen eta erakartzen. 15 Grina txarrek, erne eta gero, bekatua sortzen dute, eta bekatuak, burutu eta gero, heriotza dakar.

Santiago 4:1-5 Nondik sortzen dira zeuen artean dituzuen borroka eta haserreak? Ez ote zuen baitan borrokan dabiltzan grina txarretatik? 2

Zerbait irrikatu eta eskuratu ezin duzuenean, hil egiten duzue; zerbait gutiziatu eta lorrezin duzuenean, haserretu eta borroka egiten duzue. Lortzen ez baduzue, Jainkoari eskatzen ez diozuelako da. 3 Eta eskatu eta hartzen ez baduzue, gaizki eskatzen duzuelako da, zeuen grina txarrak asetzeko. 4 Desleial halakook! Ez al dakizue munduaren adiskide izatea Jainkoaren etsai izatea dena? Munduaren adiskide izan nahian dabilena Jainkoaren etsai egiten da. 5 Ala Liburu Santua alferrik ari dela uste al duzue, hau esatean: «Irrika biziz maite du Jainkoak guregan biziarazi duen espiritua»?

1 Pedro 1:14 Esaneko seme-alabei dagokienez, ez jarraitu ezjakinean bizi zineten garaiko grina txarrei.

1 Pedro 2:11 Ene maiteok, munduan arrotz eta atzerritar zaretenez, arren eskatzen dizuet utz ditzazuela alde batera zuen kontra borrokan ari diren giza grina gaiztoak.

1 Pedro 4:2-4 mundu honetan gelditzen zaizkion egunetan Jainkoak nahi bezala bizitzeko, eta ez giza grinen arabera. 3 Nahiko denbora egin duzue lehen ere jentilen erara biziz: lasaikeria eta biziotan, jan-edan eta mozkorkerian, eta idolatria gaitzesgarritan. 4 Orain, jentilak harritu egiten dira eta irainka ari zaizkizue, beren biziera txarreko gehiegikerietan ez duzuelako parte hartzen.

2 Pedro 1:4 Honela, agindutako ondasun baliotsu eta bikainak ere eman dizkigu, grina txarrek munduan eragiten duten ustelkeriatik ihes eginez, jainkozko izaeraren partaide izan zaitezten.

2 Pedro 2:3 Diru-goseak eraginda, irabazia lortu nahiko dute hitz maltzurrez, baina aspaldidanik dago erabakita haien kontrako epaia, eta zain dute hondamena.

2 Pedro 2:9-19 Izan ere, badaki Jaunak gizon zintzoak probalditik ateratzen eta gaiztoak auzi-egunean zigortzeko gordetzen, 10 batez ere, haragizko grina zikinen atzetik dabiltzanak eta Jaunaren agintea gutxiesten dutenak. Sasimaisuok harroputz eta ausart dira: inolako beldurrik gabe, maldizioak botatzen dituzte zerutar izakien kontra; 11 aingeruak berak, ostera, indarrez eta ahalmenez handiagoak izan arren, ez dira ausartzen Jaunaren aurrean haien kontra irainik esaten. 12 Gizon horiek, harrapatu eta sarraskitzeko sortuak diren adimengabeko animaliak bezalakoak dira: ezagutzen ez dutena madarikatzeagatik, animaliak bezala galduko dira, 13 egindako gaitzaren ordainez gaitza jasoz. Egun-argitan atseginkeriatan ibiltzea dute gogoko; jende nardagarri eta ustel hori lizunkeriatan gozatzen da, zuekin jan-edanean ari diren bitartean. 14 Begiak adulterio-irrikaz dituztela, ez dira bekatuz inoiz asetzen. Pertsona ahulak liluratzen dituzte, eta gutiziarako trebatua dago jende madarikatu

hori. 15 Bide zuzena utzirik, galdu egin dira, Bosorren seme Balaam profetaren jokabideari jarraituz. Honek bidegabeko irabazia irrikatu zuen; 16 baina izan zuen bere bidegabekeria aurpegiratu zion norbait: hitzik ez duen asto batek, giza ahotsez mintzatuz, profetari bere asmo zoroa galarazi zion. 17 Gizon horiek urik gabeko iturri dira, ekaitzak eramaten duen laino. Ilunpe beltzak dauzkate zain. 18 Hots handiko hitzaldi hutsak egiten dituzte eta grina lizunen bitartez okerbidetik aldendu berriak liluratzen. 19 Libre izango direla agintzen diete, berak bitartean gaiztakeriaren esklabo direlarik, zeren eta noren menpean jarri, haren esklabo baita gizakia.

2 Pedro 3:3 Jakizue, batez ere, azken garaietan gizon isekariak, beren grina txarrei jarraituz biziko direnak, etorriko direla. Eta irriz

1 Joan 2:15-17 Ez maitatu mundua, ezta munduko gauzak ere. Mundua maite duenak ez du bere baitan Aitarenganako maitasunik. 16 Izan ere, munduan dagoen guztia –grina txarrak, begietatik sartzen denaren gutizia eta aberastasunen harrokeria – ez dator Aitarengandik, mundutik baizik. 17 Mundua eta beronen grinak iragan egiten dira; Jainkoaren nahia betetzen duenak, berriz, betiko irauten du.

Judas 1:11 Errukarriak horiek benetan! Kainen bidetik jo dute, diru-gosez Balaamen okerbidean sartu dira eta, Kore bezala, beren errebeldiagatik galdu.

Judas 1:15-19 mundu guztia epaitzera eta gaizkile guztiak kondenatzera, egin dituzten gaiztakeria guztiengatik eta bekatari sinesgabeok Jainkoaren kontra esan dituzten irain guztiengatik». 16 Gaizki-esale dira, beti kexu, beren grinen arabera dabiltzanak; harrokeria besterik ez dute ahoan, eta beren probetxurako lausengatzen dute jendea. 17 Zuek, ene maiteok, gogoratu Jesu Kristo gure Jaunaren apostoluek aurrez iragarria: 18 «Azken garaietan gizon isekariak izango dira, beren grina zitalen arabera ibiliko direnak». 19 Zatiketak sortzen dituztenak dira horiek, giza mailan bakarrik bizi den jendea, Espirituak gidatu gabea.

Apokalipsia 18:14 «Hainbeste irrikatzen zenuen fruitua urrundu egin zaizu; galdu dituzu zeure luxua eta ospea, sekula ez berreskuratzeko».

Pastor T. John Franklin
Church of Salvation, Healing, and Deliverance
COS-HAD.org